# MIRADAS CONSCIENTES



Fernando Moleres

Comparte:

**www.calcutaondoan.org**

CALCUTA ONDOAN

Gipuzkoako Foru Aldundia

DONOSTIA - SAN SEBASTIÁN GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA FESTIVAL DE CINE Y DERECHOS HUMANOS

donostiakultura.com

Donostiako Udala Ayuntamiento de San Sebastián

Giza Eskubideak Derechos Humanos

## EL SISTEMA ACTUAL NO FUNCIONA PERO HAY ALTERNATIVAS. ÚNETE, CONSTRUYE Y APUESTA POR OTRO MUNDO POSIBLE

1300 millones de personas viven con menos de 1€ al día. El 10% de la población posee el 85% de toda la riqueza del mundo.
En los países empobrecidos las mujeres producen el 70% de los alimentos, pero son dueñas únicamente del 1% de la tierra.
En todos los países del mundo hay discriminación y violencia contra las mujeres... en Euskadi, el 82% de las personas en riesgo de exclusión son mujeres (2013).

Vivimos en un mundo en el que toda acción tiene un efecto local y global y que está condicionado por nuestro sistema neoliberal y heteropatriarcal en el que nos socializamos.

Este sistema nos ofrece una única vía para el "desarrollo": producir y consumir más, aceptando que "más es siempre mejor", sin tener en cuenta que los recursos del planeta son finitos y que el acceso a ellos y a las oportunidades se distribuye de manera muy desigual alrededor del mundo. Y mucho más si enfocamos este dato sobre la situación de las mujeres y las niñas.

Aunque no nos demos cuenta, la mayoría de nuestros actos cotidianos están al servicio de éste sistema injusto y desigual, que genera riqueza en unos pocos y pobreza para la gran mayoría de la población... A través de esta exposición, queremos visibilizar cómo con nuestro actual modelo de desarrollo, contribuimos a veces de forma inconsciente a perpetuar un mundo en el que las reglas del mercado, el dinero y la codicia prevalecen sobre lo importante: **las personas, la vida, el medio ambiente y otros valores indispensables.**

En esta exposición encontrarás realidades injustas que acontecen en muchos lugares del mundo y quizás te reconozcas en muchas de ellas. Verás que tú también estás contribuyendo o has contribuido a perpetuarlas.

El cambio hacia un modelo basado en la justicia, equidad, tolerancia y solidaridad también dependen de ti. Pero primero es indispensable informarse y ser consciente de esas relaciones causa-efecto que los medios de comunicación, la educación tradicional o los gobiernos manejados por el orden económico nos esconden.

También identificarás situaciones y acciones que ponen de manifiesto que otro mundo es posible y que el cambio está en marcha. Solo es cuestión de tomar conciencia y responsabilidad...

Por todo ello, te damos la bienvenida a la exposición "*Miradas conscientes*".

## ORIGEN DE LA EXPOSICIÓN

En Calcuta Ondoan pusimos en marcha un concurso fotográfico para mostrar la CORRESPONSABILIDAD de los países enriquecidos o del Norte, con respecto a la realidades de injusticia y discriminación que se dan en los países empobrecidos o del Sur, queriendo fomentar con ello la reflexión y el espíritu crítico sobre los efectos nocivos de la globalización.

Para ello, en un primer lugar, se proporcionaron unas fotografías que reflejaban realidades injustas en países del Sur y del Norte, cedidas principalmente por el fotógrafo Fernando Moleres (Sergi Cámara cedió las fotografías sobre flujos migratorios que muestran la realidad de Melilla).

En base a ellas, las y los concursantes elaboraron sus fotos "paralelas" para mostrar la corresponsabilidad de los países enriquecidos y para hacer reflexionar sobre las relaciones injustas desde el punto de vista de las personas participantes.

El proceso de selección de las obras ganadoras se llevó a cabo entre Calcuta Ondoan ONGD-GGKE, Plataforma Pobreza Cero de Donostia e IVASFOT –Instituto Vasco de Fotografía-.

*Seguramente te habrás fijado en que en algunas de las fotografías "paralelas" hemos difuminado las caras de las personas que aparecen en las mismas. En cambio, en las que reflejan las situaciones de países empobrecidos, no lo hemos hecho. Aquí también hemos querido buscar* ***tu mirada consciente para destacar una nueva injusticia:*** *la Ley Orgánica 1/1996, de 15 de enero, de protección jurídica del menor, protege la intimidad de nuestros menores y en cambio, a pesar de que la gran mayoría lo hacemos con nuestra mejor intención para informar sobre otras realidades injustas, no tenemos en cuenta que dichos menores también deberían de tener derecho a la misma protección.*

## SOBRE FERNANDO MOLERES



Bilbao 1963. Fotógrafo que ha centrado su vida en temas relacionados con los DD.HH. Entre ellos, ha reflejado entre otras la realidad de la explotación infantil o la situación de menores en cárceles en todo el mundo. Sus fotos, informes y proyectos son distribuidos en la prensa nacional e internacional por las agencias Panos, Laif o Luz Fotos. En 2012, obtuvo el premio "World Press Photo" por su proyecto *"Esperando una oportunidad".*

***www.fernandomoleres.com***

## SOBRE SERGI CÁMARA



Vic 1970. Fotógrafo que ha centrado su trabajo en la fotografía documental. Ha trabajado en países como Marruecos, Argelia, Mali, Níger, Nigeria, Ruanda, Yemen, Colombia, Venezuela, Panamá. Su trabajo personal se centra en las migraciones de África hacia Europa y la denuncia de la vulneración de derechos humanos en minorías indígenas, en las que lleva trabajando desde 2004, dónde combina fotografía documental con video. Las dos fotografías que se muestran en esta exposición son parte de su trabajo *"El muro de Europa"*.

*www.sergicamara.org*

PREMIO: MIRADAS CONSCIENTES

## SOBRE NORA ARROITA



Donostia, 1977. Aficionada a la fotografía, al vídeo y la pintura, ha realizado varios trabajos fotográficos y audiovisuales centrados en la relación entre las personas y su entorno y el comportamiento humano en sociedad desde un enfoque global.

Con las fotografías que presentó al concurso quiso mostrar una serie de acciones que contribuyen a que la perfecta relación causa/efecto de las desigualdades sociales, económicas y de género en un sistema globalizado sea posible y perdure en el tiempo cada vez con más fuerza.

*www.alaraiz.org*

## SOBRE CALCUTA ONDOAN ONGD

Somos una asociación gipuzkoana, sin ánimo de lucro, declarada de utilidad pública, nacida en 1999. Apoyamos proyectos de ayuda humanitaria y de desarrollo para la promoción integral de personas y grupos en India, respetando siempre su identidad como personas y como pueblo, su religión y fomentando los derechos humanos y la equidad de género. Además, promovemos en nuestro entorno una conciencia crítica y comprometida sobre las causas, consecuencias y corresponsabilidad en situaciones de exclusión, injusticia y empobrecimiento en los países del Sur. Reforzamos desde una visión positiva la solidaridad, la riqueza de la diversidad intercultural y el respeto a lo diferente.

Somos miembro de la Coordinadora de ONGD de Euskadi, la Plataforma Pobreza 0 de Donostia, la Campaña Ropa Limpia y de la Red Saretuz (Red de consumo Consciente y Responsable de Donostia).

*www.calcutaondoan.org*

# BEGIRADA KONTZIENTEAK



Fernando Moleres

Partekatu:

**www.calcutaondoan.org**

## EGUNGO SISTEMAK EZ DU FUNTZIONATZEN, BAINA BADAUDE BESTE AUKERA BATZUK. ELKARTU, ERAIKI ETA EGIN BESTE MUNDU POSIBLE BATEN ALDE

1.300 milioi pertsonak egunean euro bat baino gutxiago dutela bizi dira.
Munduko biztanleen %10ek munduko aberastasun osoaren %85 dauka.
Herrialde pobretuetan, emakumeek elikagaien %70 ekoizten dute, baina lurraren %1en jabe baino ez dira.
Munduko herrialde guztietan dago emakumeen aurkako indarkeria eta diskriminazioa... Euskadin, baztertuta gelditzeko arriskuan dauden pertsonen %82 emakume dira (2013).

Gure mundu honetan, egiten den edozerk tokian-tokian eta mundu osoan dauka eragina, eta gure sistema neoliberal eta heteropatriarkalak baldintzatuta dago, hartan sozializatzen baikara.

Sistema horrek bide bakarra ematen digu "garapenerako": gehiago ekoiztea eta kontsumitzea, "gehiago beti hobea" dela onartzea, kontuan hartu gabe planetako baliabideak mugatuak direla, eta baliabideak eta haiek ematen dituzten aukerak oso modu desorekatuan daudela banatuta munduan zehar.

Are gehiago datu horri emakumeen eta neskatoen egoera kontuan hartuta erreparatzen badiogu.

Ohartzen ez bagara ere, gure eguneroko ekintzarik gehienak sistema bidegabe eta desorekatu horren zerbitzura daude, aberastasuna gutxi batzuentzat baino ez baitu sortzen, eta pobrezia gehien-gehienentzat... Erakusketa honen bidez, agerian utzi nahi dugu gure egungo garapen-ereduaren bidez, batzuetan, ohartu gabe, egungo mundua betikotzen laguntzen ari garela; hau da, merkatuaren arauak, dirua eta kodizia lehenesten ari garela, benetan garrantzia duena bazter utzita: **pertsonak, bizia, ingurumena eta ezinbestekoak diren beste balio batzuk.**

Erakusketa honetan, munduko leku askotako errealitate bidegabeak aurkituko dituzu, eta, beharbada, zeure burua haietako askotan ezagutuko duzu. Errealitate horietan zu ere laguntzen ari zarela edo haiek betikotzen lagundu duzula ikusiko duzu.

Zure esku ere badago justizian, zuzentasunean, tolerantzian eta elkartasunean oinarritutako eredurantz aldatzea. Baina, lehendabizi, ezinbestekoa da informazioa izatea, eta komunikabideek, hezkuntza tradizionalak eta ordena ekonomikoaren mendeko gobernuek ezkutatzen dizkiguten kausa/efektu-erlazio horien jakinaren gainean egotea.

Era berean, mundua bestelakoa izatea posible dela eta aldaketa hasita dagoela aditzera ematen duten egoerak eta jarduerak ere identifikatuko dituzu. Kontua kontzientzia eta ardura hartzea baino ez da...

Horregatik guztiagatik, ongietorria egiten dizugu "Begirada kontzienteak" erakusketara.

## ERAKUSKETAREN JATORRIA

Calcuta Ondoan-ekook argazki-lehiaketa bat jarri genuen abian herrialde aberastuei edo Iparreko herrialdeei herrialde pobretuetan edo Hegoko herrialdeetan dauden injustizia- eta diskriminazio-errealitateak direla eta dagokien ERANTZUNKIDETASUNA erakusteko, eta, horrenbestez, globalizazioaren ondorio kaltegarriei buruzko hausnarketa eta espiritu kritikoa sustatzeko.

Horretarako, Hegoko eta Iparreko herrialde batzuetako errealitate bidegabeak erakusten zituzten hainbat argazki lortu ziren; gehienak Fernando Moleres argazkilariak utzi zituen (Sergi Cámara-k Melillako errealitatea erakusten duten migrazio-fluxuei buruzko argazkiak utzi zituen).

Haietan oinarrituta, lehiatu zirenek argazki "paraleloak" egin zituzten, herrialde aberastuen erantzunkidetasuna erakusteko, eta harreman bidegabeei buruz gogoetarazteko parte-hartzaileen ikuspuntutik.

Irabazle ateratako lanak aukeratzeko prozesuan, hauek izan ziren parte-hartzaile: Calcuta Ondoan GGKEa, Donostiako Zero Pobrezia Plataforma eta IVASFOT (Euskal Argazkilaritza Erakundea).

Ziur asko, konturatu zara argazki "paraleloetako" batzuetan agertzen diren pertsonen aurpegiak lausotu ditugula. Herrialde pobretuetako egoerak erakusten dituzten argazkietan, ordea, ez dugu hori egin. Hor ere **zure begirada kontzientea bilatu nahi izan dugu, beste bidegabekeria bat nabarmentzeko**: adingabeen babes juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoak gure adingabeen intimitatea babesten du, baina, gehien-gehienok asmo onenarekin egiten badugu ere beste errealitate bidegabe batzuei buruzko informazioa emateko, ez dugu kontuan hartzen argazkietako adingabe horiek ere izan beharko luketela babes horretarako eskubide bera.

## FERNADO MOLERES-i BURUZ



Bilbo, 1963. Argazkilaria; giza eskubideekin zerikusia duten gaiak landu ditu gehienbat. Besteak beste, haur-esplotazioaren errealitatea eta adingabeek mundu osoko kartzeletan duten egoera erakutsi ditu. Haren argazkiak, txostenak eta proiektuak besteak beste Panos, Laif eta Luz Fotos agentziek banatzen dituzte prentsa nazionalean eta nazioartekoan. 2012an, "World Press Photo" saria lortu zuen *"Aukera baten zain"* proiektuari esker.

***www.fernandomoleres.com***

## SERGI CÁMARA-RI BURUZ



Vic, 1970. Batez ere argazkilaritza dokumentala landu du. Hainbat herrialdetan lan egin du: Maroko, Aljeria, Mali, Niger, Nigeria, Ruanda, Yemen, Kolonbia, Venezuela, Panama.... Bere lanean Afrikatik Europarantz egiten diren migrazioak landu ditu, eta gutxiengo indigenen giza eskubideen urraketa salatu, argazkilaritza dokumentalarekin batera bideoa erabiliz; 2004tik ari da lan egiten gutxiengo indigenekin. Erakusketa honetan ikusgai dauden bi argazkiak *"Europako harresia"* lanekoak dira.

*www.sergicamara.org*

SARIA: BEGIRADA KONTZIENTEAK

## NORA ARROITA-RI BURUZ



Donostia, 1977. Argazkilaritzaren, bideoen eta pinturaren zalea da, eta hainbat lan fotografiko eta ikus-entzunezko egin ditu pertsonen eta haien ingurunearen arteko harremanaz eta gizakiak gizartean duen jokabideaz, ikuspuntu globala erabiliz.

Lehiaketara aurkeztu zituen argazkien bidez, zenbait egoera erakutsi nahi izan zituen, egoera horiek lagungarriak baitira gizarte-, ekonomia- eta genero-desparekotasunen arteko kausa/efektu erlazioa perfektua izan dadin sistema globalizatuan, eta hark gero eta indartsuago iraun dezan denboran zehar.

*www.alaraiz.org*

## CALCUTA ONDOAN GGKE-ARI BURUZ

Calcuta Ondoan GGKEa 1999an sortutako irabazi-asmorik gabeko elkarte bat da, eta herri-onurakoa deklaratuta dago. Gure eginkizuna laguntza humanitarioa ematea eta garapenerako proiektuen alde lan egitea da, Indian batez ere, pertsona eta taldeen sustapen osoa lortzeko, betiere gizaki eta herri moduan duten nortasuna eta erlijioa errespetatuz, eta giza eskubideak eta genero-ekitatea bermatuz. Gainera, Hegoko herrialdeetako bazterketa-, injustizia- eta pobretze-egoeren kausei, ondorioei eta erantzunkidetasunari buruzko kontzientzia kritikoa eta konprometitua sustatzen dugu gure ingurunean. Ikuspegi positibo batetik abiatuta, elkartasuna, kulturarteko aniztasunaren aberastasuna eta desberdinarekiko errespetua indartu nahi dugu.

Euskadiko GGKEen Koordinakundeko, Donostiako 0 Pobrezia Plataformako, Arropa Garbia Kanpainako eta Saretuz Sareko (Donostian kontsumo kontziente eta arduratsua bultzatzeko sareko) kide gara.

*www.calcutaondoan.org*